

XABIER ISASI ZUZENDARIAK MIARRITZEKO IKASTALDIEN BALANTZEA ONTZAT JO DU

Iparraldeko euskaldunen parte-hartzea indartu nahi dute heldu den urtean

■ Iparraldeko jendeak oraindik gutxi parte hartzen du UEUren ikastaldietan

■ Ipar Euskal Herrirako udatik kanpoko ekitaldiak proposatzeari buruz gogoetan ari dira

■ Miarritzeko ikastaldiak «sendotuta» ikusten ditu Xabier Isasi UEUko zuzendariak

Eneko Bidegain / Miarritze

XABIER ISASI UEUko zuzendariak EGUNKARIA-ri azaldu dio «Iparraldeko euskaldunen parte-hartzea indartu nahi» dutela Miarritzen egiten den udako ikastaldian. Azaldu zuenez, Ipar Euskal Herritik arras jende gutxi jarraitu ditu Miarritzeko ikastaldiak aurtan. Matrikulatutako 169 ikasleetatik hiru etorri dira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoatik. Ikasle gehienak bizkaitar eta gipuzkoarrak ziren. Aurtengo Miarritzeko ikastaroen balantze orokor baiko-rra egin du, hala ere.

«Uda partean oso nekeza da Iparraldeko jendetza biltzea. Negu partean egon daiteke giltzarria» adierazi zuen Isasik. UEU, Iparraldearentzat udatik kanpo zerbait proposatzen ahaileginduko dela jakinarazi zuen. Hala hirugarren adineko unibertsitate proiektu baten diseinatzeko asmoaren berri eman zuen. Erakusketak, jardunaldiak eta bilkurak antolatuko lituzkete.

«Iparraldeko ekarpena indartu da antolaketa alde-rik», zehaztu zuen Xabier Isasik. UEU gaztetu dela ere gehitu zuen, eta Miarritzeko ikastaroen «sendotzea» aipatu zuen.

Espezializazioan sakontzeko xedea

Ipar Euskal Herriko ikasleak «gai jakin batzuetara» etortzen direla azpimarratu zuen UEUko zuzendariak, hain justu ikastaldien espezializazioak jendea erakartzen duela, eta UEUk bide hori gehiago landu nahi luke. Izan ere, fenomeno hori unibertsitate munduan gero eta gehiago gertatzen dela zehaztu zuen Isasik. Ikasleek «ikastaro orokor bat baino gehiago jakintza alor berezituak bilatzen» dituztela esplikatu zuen.

Halaber, aurtan, Soziolin- guistika eta musika sailek



ANGELA MEJIAS

Irune Ibarra grafologoak Miarritzen bere jakituriaren berri eman du.

Irune Ibarrek idazkera harmonikoaren ahalbidetzeko baldintzak aztertu ditu

IRUNE IBARRA psikologo eta grafologoak *Idazkera harmonikoak ahalbidetzen* gaiaren inguruko kursoak eskaini ditu aste osoan zehar. Idazkeraren aurrebal- dintzak zehazten ditu. «Orain arte eskoletan letren formak, neurriak irakasten dira, baina jakin gabe zer- gatik», adierazi zuen Ibar- rrek. Baina irakaslea irak- sten duenaz «kontziente» bilakarazi nahi du Irune Ibar- rrek.

Mahaia, jarlekua, orria eta idazgailua kontuan har- tu behar direla zehaztu zuen. Liburu baten idazten ari da idazkeraren aurrebal- dintzei buruz. Liburuak aza- roan argiaratu behar luke, Ibaizabal argitaletxearen eskutik. Irune Ibarrek kasu handia egiten die halaber,

letren neurriari, formari, idazteko abiadurari, lerroen norabideari, arteei, presioari eta abar. Ezaugarri horiek norberaren pertsonalitate- ren berri ematen dutela esplikatu zion EGUNKARIA- ri. Neurketa sistemak badaude idazkeren ulertze- ko eta idazkera txarren bide- ratzeko. Idazkera txarrak hobe daitezkeela azpimarra- tu zuen.

Norbaitek letra txiki eta hertsiz idazten badu, haren baitako segurtasun eza era- kusten du. Handiago eta zabalago idazten ikasten badu, gero ezin izango du letra txikietan idatzi gehia- go. Hori esplikatu zuen atzo Ibarrek. «Mugimendu txiki hori handitu bada, gorpu- tzeko mugimenduak ere handitzen dira» gehitu zuen.

Bertze hainbat adibide ere eman zituen. *T* hizkiaren marratxo beheregi ezartze- ak sumisioa agertzen duen bezala, gainean ezartzeak bertzengandako nagusitasu- na adierazten du. Hori zuzen daitekeela esan zuen Ibar- rrek. *I* hizkiaren gainean puntuen ezartzeak, berriz, «arreta gaitasuna eta bestee- kiko errespetua» erakusten dituela dio.

Idazkera zuzenak auto- kontrola islatzen du. Goitik behera doan idazkera, aldiz, kanpoko egoeraren menpe dagoen eta erantzule ez den pertsonaren ezugarri da. Baina idazkerak ez duela «perfektuegia» izan behar gehitu zuen. Lerro oso zuzen eta letra oso tenteek «buru- gogorkeria» agertzen omen dute.

Irungo Alardearen atarian zauritutako mutilaren ustezko erasotzailea galdekatu du Ertzaintzak

■ Astelehenean eraman zuten komisaldegira, eta galdeketa egin ostean libre utzi zuten, epailearen deia zain

Erredakzioa / Donostia

ERTZAINEK astelehenean 27 urteko hondarribitar bat galdekatu zuten, ustez bera delako ekainaren 30ean, Irungo Alardea hasi aurretik, Jon Mikel Pikabea mutil gaztea irun- darrari zauriak eragin ziz- kion pertsona. Zauri larriak izan ziren, buruan jasotako kolpe baten ondorioz Arantzazuko Amaren erietxera eraman behar izan baitzuten, eta bertan, oso larri zegoela, ebakuntza egin behar izan baitzioten.

Herrizaingo Sailaren arabera, hainbat gazteren arteko liskarraren ondo- rioa izan zen Pikabearen zauria. Hori ondorioztatze- ko hainbat ikerketa egin dituztela esan dute ertzai- nek, eta horien emaitza izan dela aipatu atxiloke- ta. Esan dutenez, komisal- degira eraman eta galde- keta egin zioten, eta ondo- ren, epailearen deia zain, libre laga zuten. Azaldu dutenez, beste per- tsona bati ere galdeketa egin diote kasu hau dela eta inputatu gisa.

Alardeko gatazkaren itzala

Eraso honen atzean alar- dearen gatazka dagoela esan zuen jazoeraren berri izan bezain pronto Euskal Herriarrok taldeak, eta bat etorri ziren uste horre- kin Bidasoaldeko Emaku- meak taldea eta Alarde ofi- zilaren -andak ere solda- du onartzen dituen- ja- junta.

Horien arabera, Jon Mikel Pikabea gazteak emakumeak ere soldadu gisa onartzen dituen alar- dearen aldeko hainbat adierazpen egin zituen jendaurrean ekainaren 30ean, eta horren ondo- rioz zauritu zuten.

Irungo Udalak, berriz, eraso salatzen bazuen ere, ez zuen alardearen ingu- ruko gatazkarekin lotu nahi izan.